

TOLOSA / Haur Liburuaren Eguna ekitaldi josita dator

Tolosako Errotan, marrazki lehiaketa eta ipuin kontaketa egingo dituzte

Tolosa.

Haur Liburuaren Eguna ospatzeko Tolosako Errota haur liburutegiak ekintza bereziak antolatu ditu apirilean zehar.

Lehenik, Sirenatxoa ipuinari buruzko erakusketa prestatu dute. Horretarako, ipuina ikastetxeetan landuko dute umeei eta egindako marrazkiak liburutegira bidaliko dituzte. Jasotako marrazkien egileen artean liburuak zozkatuko dituzte. Martxoaren 30a baino lehenago bidali beharko dira lanak. Marrazki guztietan umearen izena, adina eta telefonoa azaldu beharko dituzte. Erakusketa apirilaren 2tik 23ra ikusgai izango da liburutegian. Bestalde, ipuina lantzeko liburuak eta pelikulak eskuragarri izango dituzte ikastetxeek.

Honez gain, ipuin kontaketa berezia ere izango da asteartean, 12.00etan. Galtzagorri elkarteak bidalitako gutunean Margaret Mahy 2006 Andersen sariaren mezua irakurtzea proposatu dute. Mezua irakurri beharrez Tolosako haur liburutegian idazle honek idatzitako *El secuestro de la bibliotecaria* izeneko ipuina kontatuko dute. Ipuin honekin batera, ikastetxetan proposatutako Sirenatxoa ipuina eta Andersen idazleari buruzko bizitza ere kontatuko diete umeei.

Azkenik, piruletak ere banatuko dituzte apirilaren 2an eta 23an: liburu maileguan eramaten duenak piruleta bat jasoko du. >m.s.s.